



Helburu eta erabilera sozialeko baratzeak

*Un proyecto integral para reactivar
la actividad agraria en nuestro
entorno y ayudar a las personas*

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Lurra lantzea, ogibide aukera
- ↪ Mejoras en la estación de RENFE
- ↪ Errekaren garbiketa hobetzeko hitzarmena
- ↪ Helburu eta erabilera soziala izango duten baratzeen proiektua lantzen
- ↪ Nueva propuesta formativa para desempleados

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Albaola
- ↪ Igartza musika
- ↪ Musika eskolaren emanaldia
- ↪ San Joan bezpera
- ↪ Aizkorriko bira

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Loinazko San Martin santuaren jaiotzaren 450. urteurrena

UZTAILA-ABUZTUAN BEASAINEN...

GUTUNA

Edorta Diaz

Zerbitzu, landa
ingurune eta
ingurumen
zinegotzia

**LURRA LANTZEA, OGIBIDE AUKERA**

Nekazaritza sektorea, Goierrin, nahikoa murrizta da eta beherakada nabarmena nozitzen ari da, belaunaldi-ordezkapen ezak, hainbat kasutan, jarduerari eusteko arazo eta zailtasunak ekarri dituelako.

Baina egia da kontsumo ereduak aldatzen ari direla, eta nekazaritzak bere lekutxoak aurki dezakeela gaur egungo kontsumo eredu masiboaren aurrean. Izan ere, produktu ekologikoen kontsumoa gora doa eta indar hartzen ari dira "km 0" moduko egitasmoak eta modu jasangarrian ekoiztutako produktuak kontsumitzen dituzten taldeak. Horregatik, barazki ekologikoen ekoizpen eta salmenta izan daiteke nekazaritza sektorearen, baserrien eta lurra lantzen duten ekoizleen etorkizunerako bermea, lurra lantzea ogibide bilakatuz. Izan ere, kontsumitzen ditugun produktu ekologikoen %15a baino ez da hemen ekoizten, beraz, barazki ekologikoak izan litezke nekazaritza sektorearen merkatu-hobi berria.

Horretarako, baina, herritarren kontsumo ohituretan eragin behar da, eskualdeko nekazaritza sektorea biziberritzea lortzeko eta gure baserriek, gure lurrek, gu hornitzeko. Eta besteak beste, helburu bera bultzatu nahi dugu baratz sozialen proiektu berriarekin.

TRABAJAR LA TIERRA COMO OPORTUNIDAD

Ese es el objetivo que nos hemos propuesto con el nuevo proyecto de las huertas sociales. No sólo queremos trabajar la tierra, queremos impulsar el consumo de los productos ecológicos para fortalecer el sector agrario y preservar nuestro paisaje, nuestro entorno, y sobre todo, nuestros caseríos. Es un proyecto integral que pretende ayudar a los que menos tienen y ofrecerles un oficio, pero también busca abrir nuevos horizontes y caminos en lo que a la producción y venta de productos ecológicos se refiere, para aumentar así la actividad agraria en nuestro entorno y abastecernos con productos de aquí, de nuestros caseríos y nuestras huertas.

MEJORAS EN LA ESTACIÓN DE RENFE

Ya han comenzado las obras para mejorar la accesibilidad y la iluminación en la estación de Beasain. Dentro de las actuaciones previstas, se instalará un nuevo pavimento y varios ascensores entre paso inferior y andenes. Además del recrecido de los andenes 1 y 2, también se colocarán nuevas barandillas y pantallas acústicas para mitigar el ruido de los trenes.

Estas mejoras, financiadas por Fomento con un coste total de 800.000€, se están llevando a cabo gracias a la inclusión de Beasain en el Plan de mejora de Estaciones que debe ser aprobado por Fomento en Madrid.

**ERREKAREN
GARBIKETA
HOBETZEKO
HITZARMENA**

Berriki, Beasaingo udalak lankidetzak hitzarmena sinatu du Uraren Euskal Agentziarekin errearen garbiketarako. Betiere, landaredian kalterik egin gabe eta ibai-ekosistemen biodibertsitatea babestuz, ibai-ibilgu eta ertzetan garbiketa lanak burutzea da xedea, besteak beste, hiri-hondakin solidoak kentzeko.

Dena den, ekintza plana garatuko dute bi erakundeek artean, urtero egin beharreko lanak zehazteko eta horiek eraginkorrak izateko. Era berean, batzorde bat eratuko da, ibai-tarteetan gauzatuko diren lanak planifikatu, koordinatu, ebaluatu eta errazteko.

HELBURU ETA ERABILERA SOZIALA IZANGO DUTEN BARATZEEN PROIEKTUA LANTZEN



Al contrario del anterior proyecto que contemplaba realizar 88 huertas de ocio en una zona industrial cuyo valor ascendía a 256.000 euros, el nuevo proyecto de huertas sociales se llevará acabo en un espacio de ocio y esparcimiento y tendrá un coste total de 42.000 euros - 60 huertas - por lo que el Ayuntamiento ahorrará 214.000 euros.

Udala, gizarte eragile eta nekazaritza adituekin, Caritas eta Sarea Fundazioaren eskutik, baratzeen proiektua lantzen ari da. Eztanda atzeko lurretan 60 baratze prestatzea da asmoa, arlo sozialari lehentasuna emanez. Behinik-behin helburu eta erabilera soziala izango duten baratzeak EKO GUNEA fundazioarekin gauzatuko dira 42.000 euroren truke. Beraz, joan den legegaldiko aisialdi baratzen kostuarekin alderatuta, 256.000 euro, udalak 214.000 euro aurreztuko ditu.

Lazkaoko baratze okupazionalen proiektua eredu hartuta, tankerako proiektua garatu nahi du udalak behar gehien duten pertsonak erabil ditzaten baratze sozial hauek. Gauzak horrela, baratze okupazioan enplegu sorrera sustatzeko baliatuko dira. Erabiltzaileen lan merkaturatzea eta gizarteratzea sustatuko du proiektuak; barazki ekologikoen kontsumoak gora egin duen arren, soilik %15 ekoizten da bertan, eta beraz, enplegua

sortzeko aukera bikaina izan daiteke baratzeetan ekoizten dena merkaturatzen bada, betiere, ekoizle txikiekin talka egin gabe.

Baratzeak esleitzeko irizpideak zehazten ari da udala, eta proiektua aurrera eramateko, Sarea Fundazioaren eta Udalaren artean lankidetzat hitzarmena sinatuko da eta udalak, Sarea Fundazioaren aholkularitza izango du.

2. fase batean, baratze sozialen proiektua abiapuntutzat hartuta, baserrigintza indartuko da baratzeetako erabiltzaileak eta baserritarrak harremanetan jarritz. Egitasmo honen bitartez, baserrietan errelebo eza dela eta lurrak lantzeko duten zailtasunari erantzun nahi zaio, inguruetako eta baserrietako lurrak erabilgarri eta errentagarri eginez eta modu jasangarrian ekoiztutako bertako barazki ekologikoen salmenta eta kontsumoa bultzatuz, nekazaritza sektorea indarberritzeko.

NUEVA PROPUESTA FORMATIVA PARA DESEMPLEADOS

Con el objeto de aumentar las oportunidades de empleo y la inserción laboral de desempleados/as de Beasain, el ayuntamiento ha financiado y desarrollado, junto a Lanbide y Goierri Eskola, los nuevos cursos de formación específica que darán comienzo en septiembre.

La acción formativa se ha ajustado a las necesidades de las empresas de la comarca para ofrecer una formación acorde a la demanda y así aumentar la empleabilidad de quienes participan en la misma.

Para más información las personas interesadas pueden acudir a Goierri Eskola.

Goierri 
eskola

 **Lanbide**
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EKAINA BEASAINEN



Albaola



Loinatz musika eskolako ikasturte amaierako emanaldia



Tomas Salazar 8. Aizkorriko bira



Igartza Musika - Bi poliedro

BEASAIN,
HERRI BIZIA



• BEASAINDIK •



San Joan bezpera

LOINAZKO SAN MARTIN SANTUAREN
JAIOTZAREN 450. URTEURRENA

Informazio iturria eta irudiak: Josetxo Zufiaurre.

Nor zen?

San Martin Loinazkoa, 1566ko uztailaren 16an jaio zen Beasaingo Amunabarro baserrian. 20 urte zituela frantziskotar fraide bilakatu zen eta ondoren, apaiz egin zen San Bernandinon.

Martin Loinazkoak, baina, misiolaria izan nahi zuen, Japonian gainera. 1593an Mexikora bidean jarri zen, garai hartan ez baitzen Japoniara heltzeko beste modurik. Manilan bi urte egin zituen, bertako komentu batean Filosofia eta Teologia irakatsiz, baina betiere Japoniarantz begira. Azkenean, 1596an lortu zuen Nagasakiko portura iristea.

Gaur egungo Tokio hiriko komentu-eritexean egindako denboran, behartsu eta gaixoei lagundu zien. Egindako lanari esker, Osakako komentu buru izendatu zuten eta bere ospeak, kristau kopurua areagotu zuen. Horrek eta misiolariaren lanagatik enperadoreak jasotzen zituen kexek, azken honen ezinegona eragin zuten. Ondorioz, komentutik ez irteteko agindua eman zieten fraide guztiei. 1596ko abenduaren 30ean soldatu talde bat komentura joan, fraideak hartu eta atxilotuta hiriko kartzelara eraman zituzten.

Ondoren, Nagasakira oinez eraman eta mendi tontorrean, akolito eta kristauen artean, gurutzatu eta gorputzean lantzak sartuta hil zituzten atxilotu guztiak, 1597ko otsailaren 5ean. Bere ibilbideagatik, Pio IX.ak santu izendatu zuen 1862. urtean.



Loinazko San Martinen heriotzaren 300. urteurrena ospatzeko prozesioa 1897an.



Cada año, en febrero, nuestro municipio festeja a su patrón San Martín de Loinaz. En 1962 Beasain dedicó su plaza principal y la estatua ubicada en el Paseo de Gernika, a su patrón.

Este año 2016, concretamente el 16 de julio, se celebra el 450 aniversario del nacimiento de San Martín de Loinaz. Un buen momento para mirar atrás, hacer un breve repaso y ver cómo ha ido conmemorando Beasain a su patrón en el transcurso de los años.

Nola omendu du Beasain herriak bere patroia urteetan zehar?

1666. urtean, bera jaio eta 100 urte betetzen zirela, Beasaingo herriak, Loinazko San Martinen oroimenez, Kofradia sortu zuen.

Kofradiaren lehen liburuari esker ezagutu da Beasaindar honen bizitza, martiritza eta heriotza.

1897an, Loinazko San Martin hil zutela 300 urte bete ziren eta omenaldi modura, otsailaren 5ean, prozesio jendetsua egin zen elizatik Loinazko San Martinen basilikaraino. Han, meza ospetsua izan zen eta hurrengo eguneko mezan, berreraikitako izan zen Loinazko San Martinen aldea inauguratu zen.



Ekintza horietan jende ugari hartu zuen parte; 4000 pertsona baino gehiagok hartu zuten jaunartzea eta garai hartan Beasainek 2000 biztanle inguru besterik ez zituen.

Urte bereko maiatzean, Kofradiak, urtero, uztailaren 16an, San Martinen Kaperan, bere jaiotzaren oroimenez meza ematea erabaki zuen.

1962 urte arte iraun zuen ospakizun horrek, geroztik ez baita besterik ezagutu. Urte berean, Beasaingo plaza nagusia Loinazko San Martin plaza izendatu zen eta estatua ezarri zen bere oroimenez Gernika pasealekuan.

2016 honetan, hain zuzen uztailaren 16an, bere jaiotzaren 450. urteurrena beteko da. Ez dakigu antzina egiten ziren moduko ospakizunik egingo den, baina gure arbasoek nola omendu zuten eta Loinazko San Martin Santua bera zein zen, behintzat, ekarri dugu gogora.

UZTAILAK

27

FUSILATUEN 80. URTEURRENEKO OMENALDIA
HOMENAJE A LOS FUSILADOS EN SU 80 ANIVERSARIO

JULIO 19:00 Fusilatuen omenez eraikitako monumentuan

Egitaraua:

- Aurkezpena
- Irakurketa-taldeko kideen errezitaldia: olerkiak, bertsoak...
- Senideen irakurketa eta hitzak
- Dantzariak
- Musikariak, eraildakoen izen-deituren irakurketarekin batera
- Lore eta kandela eskaintza



El 27 de julio se cumplen 80 años desde que en 1936 militares, requetés y falangistas se sublevaron contra el poder republicano y tomaron con armas Beasain. Además de los heridos y fallecidos debido a esta rebelión, 36 personas fueron fusiladas en aquel día tan sangriento, al igual que sucedió en los meses y años siguientes hasta 1942 con el fusilamiento de otras 16 personas. Para conmemorar aquel duro suceso, se construyó un monumento al final de la Avenida de Navarra diseñado por el artista beasaindarra Jokin Telleria.

ABUztuak

01

MONOZIKLOAN
"DOWNHILL"
MUNDUKO
TXAPELKETA

AGOSTO

17:30-20:00

Sagastiguti parkea-Bideluze plaza



Argazkiak: Garbiñe Irizar



KZ gunea

UZTAILEKO IKASTAROAK

Urruneko formakuntza Formación a distancia

Dropbox	2016/07/11-2016/07/20
Twitter	2016/07/11-2016/07/20
Pinterest	2016/07/11-2016/07/20
Wordpress	2016/07/11-2016/07/27

Ikastaro presentzialak Cursos presenciales

Internet Básico	2016/07/11-2016/07/22 (9.00-11.00)
Compras seguras por Internet	2016/07/13 (18.00-20.00)
Paga con seguridad en Internet	2016/07/14 (18.00-20.00)
Educación y valores para menores en Internet	2016/07/28 (9.00-11.00)
Antivirus gratuito. Protege tú ordenador	2016/07/29 (18.00-20.00)
Ofimatika tresnak. LibreOffice.	2016/07/13-2016/07/27 (11.00-13.00)
Aplicaciones Google para tu gestión personal	2016/07/18-2016/07/28 (18.00-20.00)
Comunícate a través de las redes sociales	2016/07/11-2016/07/12 (11.00-13.00)
Argazkien ukitua Gimp erabiliz	2016/07/01-2016/07/12 (18.00-20.00)

Informazio gehiago: www.kzgunea.eus

Lege gordailua: SS 403-2016



Beasaino Udala